



Dramaturgia eta zuzendaritza: **Patxo Telleria**
 Aktoreak: **Mikel Martinez eta Sandra Fdez.Aguirre**
 Jantzigintza eta diseinua: **Betitze Saitua**
 Eszenografia eta objetuen sorkuntza: **Pedro Rojo (EL Cajón)**
 Espazio sonoroa: **Adrián Garcia de los Ojos**
 Argiztapena: **David Rodriguez**
 Ekoizpen Exekutiboa: **Pio Ortiz de Pinedo eta Myriam Garzia**

TARTEAN teatroa

Estrenaldia:
2022ko martxoaren 9 eta 10n Bilboko Arriaga Antzokian

ALDERRAY

Eskenatokia ilun dago.

Argi puntual bat piztu eta Morroia ikusten dugu.

Morroia

Gizonezkoa. Hirurogeita zazpi urte, hirurogeita hamaika kilo. Ile gaztainkara. Alderray deituko diogu. Pertsonaien ehiztaria. Alderray kalerik kale ibiltzen da jende bereziaren bila. Gero haien istorioak kalean kontatzen ditu, diru truke. Ehiztaria eta kontalaria da... edo zen, ez baitakit oraindik bizirik dagoen.

Txikia nintzelarik bere istorio asko entzun nituen. Hunkitu egiten ninduten. Neure bizitza

Alderray esnatzen da asaldaturik. gidatzeko adina izan nuenean Alderray-rengana hurbildu nintzen. Ofizioa ikasi nahi nuen bere ondoan. Morroi gisa hartu ninduen. Ni agertu eta gutxira, Alderray maldan behera hasi zen. Edanari eman eta lana deskuidatzen hasi zen.

Berarekin pasa nuen azkeneko egunarena kontatuko dizuet, gusto baduzue.

Eskenatokia argitzen da. Alderray ohean dago.

Morroiak esnatzen du.

Morroia

Jauna... Jauna...

Alderray

Zer...! (...) Zer nahi duzu?

Morroia

Lanean hasteko ordua da.

Alderray

Lanean? Orain?

Morroia

Bai, orain. Jende asko dabil kalean.

Alderray

Ez... Ez nago... ez nago prest.

Morroia

Gaur ere ez?

Alderray

Ez nago ondo. Nekatuta nago. Itolarriz.

Morroia

Altzatu zaitez, mesedez.

Ian egin behar dugu.

Alderray

Ez nago jendartera agertzeko moduan. Ahotsa urratua daukat, buruko mina...

Morroia

Sekulako biharamuna daukazu.

Alderray

Eta begira alkondara gastatua... Eta zapatak ere zikin. Jendartera duintasunez agertu behar da.

Morroia

Egunak daramatzazu horrela, jauna. Lozorroan, edanean... Horrela ez zara zulotik aterako.

Alderray

Utzi bakean!!! Nik badakit neure burua zaintzen.

Morroia

Ba... Ez badiozu honi buelta eman nahi, ni banao.

Alderray

Ados. Bueltatzen zarenean ekarri edateko zerbait.

Morroia

Ez didazu ulertu. Banao. Betirako.

Alderray

Betirako?

Morroia

Nekatu naiz zu horrela ikusteaz.

Alderray

Eta zer egingo duzu zuk bakarrik?

Morroia

Zuk egiten duzuna. Zuk egiten zenuena, hobeto esanda. Pertsonaiak aurkitu eta haien istorioak kontatu.

Alderray

Oraindik ez duzu ofizioa ikasi. Nola hasiko zara zure kabuz lanean? Zer esango du jendeak? "Begira, hori Alderray-ren diszipuloa izan zen. Ez zion gauza handirik irakatsi, agure zahar horrek".

Morroia

Eta hala da. Baina argi dago zuregandik ezin dudala ezer espero.

Alderray

Zer esan nahi duzu?

Morroia

Argiago esan behar dizut, ala?

Alderray

Oraindik ez dakit ofizio honetarako balekoa zaren ala ez. Horregatik ez dizut... Edozeinek ez du balio.

Morroia

Eta noiz arte itxaron beharko nuke? Nik ez dut hemen usteldu nahi.

Joateko keinua egiten du.

Alderray

Egon!

Alderray altzatu eta hitz egin bitartean lanerako jazten da arreta handiz.

Alderray

Ikasi nahi duzu? Ondo da. Gaur elkarren artean kontatuko ditugu istorioak.

Morroia

Elkarren artean? Eta musika? Nork jarriko du musika?

Alderray

Ezin dituzu bi gauza batera egin?

Morroia

Bai. Baina...

Alderray

Ekarri nire abrigua. Eta aukeratu pertsonaia bat.

Morroia

Nik?

Alderray

**Bai, zuk. Segi...!!
Une bakoitzerako istorio egokia aukeratzea ofizioaren parte da.**

Morroia artxiboetan istorio bat bilatzen du.

Alderray

Arinago, neska! Jendea zai daukazu!

Azkenean bat aukeratzen du.

Alderray

Zein aukeratu duzu?

Morroia

Zoritxarreko Neskato Zoriontsua

Alderray

Zeuk ikusi!!!

Morroia

Pertsonaiak!!! Hurbildu eta ezagutu pertsonaiarik harrigarrienak! Mota guztietako pertsonaiak, jaun andreak! Benetako pertsonaiak, hiri honetan harrapaturikoak.

Gure lehenengo pertsonaia....

Alderray

**Mantsoago... Hurbiltasuna, morroia... Hurbiltasuna.
Publikoa poltsikoan sartu behar duzu.**

ZORITXARREKO NESKATO ZORIONTSUA

Morroia

Gure lehenengo pertsonaia hamar urteko neska bat da. Ile gaztainkara, metro eta hogei zentimetro, hogeita hamazortzi kilo. N.A.N. 34623765 H. Zoritxarreko Neskato Zoriontsua deituko diogu.

Alderray

Potolotsua zen, betaurrekoduna, ibilera baldarra... oso baldarra.

Morroia agerian jartzen da. Betaurreko lodiak ditu. Ping pong pilota handi batekin jolasten ari da, oso baldar.

Pandemia garaian, protokoloak betetzeko, eskolako umeen urtebetetze festeetan, ume bakoitzak asko jota sei lagun gonbidatu zitzakeen. (...)Hara, kurtso osoan neskatoa ez zuten festa bakar batean ere gonbidatu. Baina berari ez omen zitzaion inporta. Bera zoriontsua zen.

Morroia

"Ama, ni asko maite naute klasean."

Alderray

...esaten zion amari.

Morroia

"Kontua da bakarrik sei lagun gonbidatzeko baimena dagoela. Sikeran zazpi gonbidatzeko aukerarik balego, ni guztien urtebetetze festetan egongo nintzateke."

Alderray

Ikasgelako ikasle ospetsuenen zerrenda bat egitekotan, bera zazpigarren postuan egongo zela sinisten zuen. Inuxenteak.

Morroia

"Zazpigarrena naiz, ama. Horregatik ez naute gonbidatzen, soilik sei joan daitezkeelako, ulertzen?"

Alderray

Ondo ulertzen zuen, bai, amak.

Morroia

"Zazpigarrena naiz, eta hori askotxo da, kontuan izanda klasean 27 gaudela. Piramidearen tontorrean nago.

Alderray

Jolas-orduetan eskolakideek zehatz mehatz kontatzen zuten zeinen ondo pasa zuten aurreko eguneko festan. Neskatoa poztu egiten zen besteen pozarekin.

Morroia

Eta bola parke batean egon ziren, ama, eta txokolatea txurroekin jan zuten, eta scape-room batera joan ziren...

Alderray

Amak ontzat ematen zuen alabaren xalotasuna, sikan ez zuen sufritzen. Aitak, ordea, ezin zuen eraman.

Alderray

Behin aita eta alaba ikusi nituen parkean, pin ponean jolasten.

Alderrayk ping pong pilotak jaurtitzen dizkio. Neskatoak ez du batere harrapatzen.

Neska, aitak egindako tanto bakoitzarekin algaraka hasten zen.

Morroia

Ona! Oso ona, aita! Onena zara!

Alderray

Aitak jokoa gelditu eta azaltzen zion aurkakoak tantoa egitekotan haserretu behar zela, eta haserre hori baliatu hurrengoan berak tantoa egiten saiatzeko. Sikeran saiatzeko.

Alabak baietz, baina ondorengo tantoa galdu eta han hasten zen berriro.

Morroia

Aupa aita! Hori da tantoa, hori!!!

Alderray

Aitak jokoa BERRIRO gelditu eta ohiuka galdetu zion: Baina ez al didazu ulertzen??

Morroia

Ulertzen dizut, aita. Baina ulertuidazu zuk niri: nola ez naiz poztuko, nire aitak ping pong-ean hain ondo egiten badu. Nola ez naiz ba poztuko??

Alderray

Aitak burua jeitsi eta isildu zen. Goazen etxera lehor batekin abiatu zen. Alaba segika joan zitzaion. Deigarria zen, alabaren irribarrea eta aitaren tristura keinuaren arteko kontrastea.

Musika bukatu da.

Morroia "jendartera" joaten da, txano batekin. Alboetara doa, farolen atzekaldera. Dirua biltzen du. Lantzean behin txintxin hotsak entzuten dira, txanponak txanoan botatzean.

Morroia

Zoritxarreko Naskato Zoriontsua! Milesker. Nola jokatuko genuke guk haren tokian? Eskerrik asko... Eta gurasoen tokian? Nola jokatuko zenuke gurasoen tokian? Milesker. Zoritxarreko Naskato Zoriontsua, milesker zuen arretagatik.

Morroia bueltatzen da txanoarekin.

Alderray

**Txarto morroia. Txarto egin dugu.
Eta Istorioaren aukeraketa ere ez zait gustatu.
Pertsonaia hau katalogotik aterako dugu.**

Morroia

Zergatik?

Alderray

**Faltsua da. Neskatoaren poza faltsua da.
Gezurra ez dut gustoko. Eta, gezurra nork bere
buruari esatea.. hori azkena da. Eta aitak...
aitak hobe zukeen semealabarik izan ez balu.
Lasaiago biziko zen.**

Morroia

Ez hitz egin ez dakizunaz.

Alderray

Nola?

Morroia

Semealabarik duzu, ala?

Alderray

**Nik semealabarik? Eta ze arraio inporta du
horrek...?**

Morroia

Ezin duzu jakin aita batek zer sentitzen duen.
Are gutxiago alaba batek.

Alderray

**Jendea zai dago, gazte, beraz, isildu eta atera
ganorazko pertsonaiA bat.**

Alderray

Zein aukeratu duzu?

Morroia

Langile arrakastatsua.

Alderray

**Ondo da. Kontuan izan pertsonaia biolentoa
dela.**

Morroia

Bai, jauna.

Alderray

Dramatikoa! Ez egin pailazoarena, mesedez.

Morroia

Ez, jauna.

Langile Arrakastatsua

Morroia

*Gizonezkoa. Berrogeita lau urte, metro eta hirurogeita hamaika, laurogei ta bost kilo, ile beltza. 25454345 J **Langile arrakastatsua** deituko diogu.*

Musika hasten da.

Alderray

Sikiatriko batean dago giltzapeturik. Hara joan nintzaion bisitan.

Gizon prestua zen lehen, langilea, zintzoa... eta pobrea.

Ikasketarik ez, eta kualifikaziorik gabeko peoia zen.

Morroiak pertsonaia egiten du. Langile bat, mazo handi batekin.

Morroia

Baina ez nintzen konformatzen. Gora egin nahi nuen bizitzan. Lanpostu hobea, soldata hobea... Giza prestigio pixka bat.

Alderray

Bere helburua lortzekotan, zeukan diru apurra gastatu zuen entrenatzaile motibazional batekin. Coach bat. Honek bazeukan lelo bat: "Benetan saiatzen denak, lehenago ala beranduago, arrakasta lortzen du."

Morroia

Hori ondo dago, bai horixe!

Alderray

Hamaika eredu erakutsi zizkion...

... pintore izatea lortu zuen itsua, opera kantari gor-mutua, New York-eko maratonia bukatu zuen elbarria, edo anketako behatzekin pianoa jotzen zuena.

Honek esperantza eman zion,

Morroia ikusten dugu, gogor lanean.

Morroia

Ikasketarik ez, baina borondatea... Borondatea sobera daukat! Lehertu arte saiatuko naiz.

Morroia ikusten dugu, gogor lanean.

Alderray

Lanean lehertu arte saiatu arren, peoi izaten jarraitzen zuen.

Morroia

Again ez naiz behar beste saiatu.

Alderray

Ez zuen amore eman. Coach bat bestearen ondotik bisitatu zituen. Hitz desberdinez, denek zuten mezu berdina.

"Norberaren baitan dago aurrera ateratzeko indarra, nor bere zorte onaren edo txarraren erantzulea da"... bla, bla, bla.

Morroia ikusten dugu, gogor lanean.

Alderray

Behin eta berriro saiatu zen. Saiatu, erori eta berriro altzatu, saiatu, erori eta berriro altzatu, saiatu, erori... eta erori...

Morroia

Behar bezala saiatzen ez naizelako.

Alderray

Bere bizitza gris eta bere pobreziaren errua berea zela jakiteak hondoratu zuen. Besoak jeitsi zituen. Lanetik bota zuten. Kaleko eskaleak eta mozkorrak ziren orain bere kideak. Haiek ikusi eta pentsatzen zuen...

Morroia

Behar bezala ez saiatzeagatik. Ondo merezia dute hauek ere marginazioaren zigorra. Nik neuk bezela.

Alderray

Denborarekin, ordea, gauzak beste modu batera begiratzen hasi zen. Entrenatzaile motibazional horien mezua, hain polita itxuraz, galtzaileak beren zorte ilunarekin konformatzeko asmatua zen. Mezu atzerakoia. Faltsua. Zitala. Krudela.

Morroia

Pobreak haien pobreziaren sortzaileak? Tristeak haien tristuraren errudunak? Madarikatua, erlijio berria.

Alderray

Amorraturik, gau batean zazpi coach akatu zituen. (Tatxan)

Pertsonaiak mazoa erabiltzen du triskantzarako.

**Gero bere burua errendatu zuen komisarian.
Hamar urte pasa dira ordutik.**

Joan baino lehen azken galdera luzatu nion: Ea zer moduz bizi zen sikiatrikoan.

Morroia

Oso ondo...

Alderray

...erantzun zidan berak.

Morroia

Hilketa horiek famatu ninduten. Errespetuz tratatu ninduten kartzelan, eta hemen ospe ona daukat.

Alderray

Suerteko zaude, esan nion. Eta berak...

Morroia

*Ez da suerte kontua, gizona. Saiatzea da.
Bizitza honetan saiatzen denak, lehenago edo
beranduago arrakasta lortzen du.*

Musika bukatu da.

Morroia dirua batzen hasten da.

Alderray

"Langile arrakastatsua" entzun duzue, jaun andereak!

Morroia

*Langile arrakastatsua. Milesker. Gizarte
lehiakorraren kontraesanak... eskerrik asko.
Arrakasta eta porrotaren engainua agerian uzten
duen pertsonaia. Milesker. Langile
arrakastatsua.*

Morroia bueltatzen da.

Alderray

Zertara etorri da "kung fu" hori?

Morroia

Ez didazu esan dramatikoa egiteko?

Alderray

**Baina neurritz! Narrazio on baten misterioa,
kakoa, neurrian datza. Apalegia bazara, ez da
magiarik sortzen, baina harroegia izan ezkeru,
misterioak izutu eta alde egiten du. Ulertu
duzu?**

Morroia

*Sikeran istorioa ondo aukeratu dut, ez? Hau
zure gustoko pertsonaia da. Dramatikoa,
indartsua, odoltsua.*

Alderray

Ez nauzu hainbeste ezagutzen, morroia.

Morroia

Izen bat daukat, badakizu?

Alderray

Eta?

Morroia

"Neska", "gazte", "zu", "aizu"... Izen bat daukat!

Alderray

Ez geunden ba, lanean?

Morroia

Bai, jauna.

Alderray

Ba segi. Eta gogoratu! Neurritz! Istorioaren mesedetan egon behar dugu guk, eta ez alderantziz! Istorioa da ajola duena, eta ez kontalaria.

IRAKURLE MUGIEZINA

Morroia

Emakumea. Berrogeita hamazortzi urte, metro eta hirurogei ta bi, berrogeita hamaika kilo, ile luze beltza. NAN zenbakia 22356784 N. Irakurle Mugiezina deituko diogu.

Musika hasten da.

Alderray

Irakurtzea maite zuen. Gaztetan idazlea izatearekin amestu zuen, baina supermerkatuko kajerua izan zen, berrogeita bostekin kalera bota zuten arte. Iraupen luzeko langabetua, familiarik gabe, miseria gorrian. Behin, plaza batean, estatuarena egiten ari zen norbait ikusi zuen. Astronautaz jantzita zegoen, geldi geldi. Lurrean utzitako platertxoan txanpon bat jausi, klink!, eta astronautak, grabitaterik gabeko pausu bat ematen zuen. Andreak pentsatu zuen lan erreza zela, geldi egotea, berak ere egin zezakeela horrenbeste. Pertsonaia bat aukeratu behar zuen.

Plaza hortan bazegoen brontzezko estatua bat,
literato famatu batena. Banku batean eserita,
liburu bat eskuan zuela.

Morroia

*Huraxe izango naiz ni, eta txanpona botatzen
didaten bakoitzean liburuko orri bana pasako
dut.*

Alderray

Inbertsio gutxi behar zuen. Traperuei merke
erositako gizonetzkoen traje bat, aulki zahar
bat, gris metalikoz pintatzeko espraya eta
aurpegia margotzeko barra bat.

Morroiak pedestala prestatzen du.

Morroia

Eta liburua!

Alderray

Eta liburua arretaz aukeratu zuen bigarren
eskuko denda batean.

Eguna heldu zen. Negua. Larunbat goizean.
Kaleak pil-pilean.

Morroia pedestalean esertzen da liburuarekin. Geldi geldi.

Alderray

Platertxoa lurrean ipini eta liburua eskuartean
zuela eseri zen andrea, gelditasun osoan.
Mugitu gabe egin zezakeenez, liburua irakurtzen
hasi zen, denbora arintzeko.

Lehen orria ziztuan irakurri zuen. Hurrengora
pasatzeko gogoa zuen, baina ezin zu/en mugitu.
Azkenean norbaitek lehenengo txanpona bota,
klink!, eta hurrengo bi orrialdeak irakurtzeko
parada izan zuen.

Baina irakurtzen jarraitzeko, norbaitek txanpon
bat bota arte itxaron behar. Klink! Goiza azkar
joan zitzaion, liburuko tramak harrapaturik.
Batzuetan denbora luzez itxaron behar zuen
orria pasatzeko, baina orokorrean erritmo onean
jausten ziren txanponak. Klink, klink, klink..

Eguerdia heldu zenerako ia liburu erdia irakurria zuen. Iluntzean, Plazako dendak itxi zituztenean, kapitulo bakarra falta zitzaion. Gainontzeko estatuak, kaleko musikariak eta malabaristak joanak ziren. Bera gelditu egin zen.

Gauerdiko hamabietan dozena bat orri falta zitzaizkion. Elurra hasi zuen, mara mara.

Gaueko ordubietan, sei orri falta zitzaizkionean, mozkor batek txanponak lapurtu zizkion. Gaueko hiruretan azken taberna zuloak itxi zituzten. Barre egiten zioten ondotik pasatzen ziren xurruteroek: aspaldi orria pasa gabe eta elurra pilatua zuen liburu gainean.

Goizeko bostetan txanpon bat bota zion lanera zihoan langile batek. Klink!

Goizaldeko seiretan, kale garbitzaile batek aurkitu zuen. Izoztua. Estatuarena modu ezin hobean egiten. Orrialde bakar bat falta zitzaion.

Musika amaitu da.

Morroiak dirua batzen du.

Morroia

Irakurle Mugiezina. Milesker. Irakurtzea ala bizitzearen artean aukeratu behar zuen andrearen istorio melodramatikoa. Eskerrik asko. Eta zuk? Zerbaitegatik galduko zenuke bizitza zuk? Milesker. Irakurle Mugiezina.

Morroia bueltatzen da.

Morroia

Zer moduz orain, Jauna? Ezin duzu esan gehiegi mugitu naizenik

Alderray

Hobeto, bai. Jaso hori! Hala ere... istorioa ez da egokia.

Ez da zure errua, dena den.

Uste dut pertsonaia hau ere katalogotik kenduko dugula. Hildakoaren senide batek kontatu zidan, sos batzuren truke. Susmoa dut faltsua dela.

Morroia

Baina egunkarietan agertu zen berria, estatuarena egiten hil zen emakumea.

Alderray

Infartoak jota hilko zen. Beste guztia, elurra, irakurtzeko grina, orriak pasatze hori... Fortzatua. Kasualidade gehiegi. Istorioek, kasualidadeetan oinarritzen direnean, sinesgarritasuna galtzen dute.

Morroia

Batzuetan holakoak gertatzen dira.

Alderray

Zuk nahi baino gutxiagotan.

Morroia

Eta zer, ez bada egiazkoa? Istorioa ona bada...

Alderray

Guk ez dugu literatura egiten, neska. Guk egiazko pertsonaiak bilatzen ditugu. Egiazkoak! Guk egia jasotzen dugu kaletik, eta kaleari bueltatzen diogu hitzaren bidez. Hitza da gure makil magikoa. Hitzarekin sorrarazi behar ditugu paisaiak, aurpegiak... Hitza irudi bihurtu behar dugu, ulertzen?

Morroia

Bai, jauna.

Alderray

Ba segi lanean, ea behingoz bukatzen dugun. Tragu bat behar dut, benetan.

Morroia

Gizonezkoa. Berrogei eta hiru urte. Nortasun Agiria 23354674 H. Metro ta hirurogeita bi. Hirurogeita hamar kilo. Lapur Terrorista deituko diogu.

LAPUR TERRORISTA

Alderray

Kartzelan dago, zigor luzea betetzen. Han elkartu ginen. Denok entzun duzue inoiz lapur horien berri. Gas instalazioa edo telefono konexioa errebisatzeko aitzakiarekin, adineko jendearen etxeetan sartu eta lapurreta egiten dutenak. Gure pertsonaia, horietako bat zen. Konpainia elektrikoaren buzoa eta dokumentazioa erabiltzen zituen. Bere lehenengo kolpea, hala ere, ez zen ondo joan. Atso batek ireki zion. Zimurrak eta gernu usaina.

Morroiak pertsonaia osatzen du. Kable elektriko bobina bat dauka.

Morroia

Egun on, andrea! Kontadorea begiratzera nator.

Alderray

Amua irentsi zuen atsoak. Kasualidadez, bi egun zeramatzan argirik gabe: "Ai ene jainko maitea, eskerrak atzera egin duzuela, ez zen zilegi, ez, ni argirik gabe uztea" eta bla, bla, bla.. Sukalderaino eraman zuen, argi-kaxa zegoen tokira. Lapurra, itxurak egiteko erreminta kutxa zeramanez, segituan hasi zen lanean.

Pertsonaia lanean hasten da, kablea askatzen espazio eszenikoan zehar.

Berehala konturatu zen etxe hartara ez zela elektrizitaterik heltzen. Moztuta zegoen. Atsoak ez omen zituen fakturak ordaintzen. Lapurra konexioa pirateatzen hasi zen, zer lapurtu bilatzen zuen bitartean.

Bi ordutara atsoak argia zeukan etxean.

Pertsonaiak bonbilla bat pizten du eszenografiako puntu batean.

Baina lapurrak ez zuen ezer lapurtzeko aukerarik izan.

Morroia

Ezin ezer eraman. Begirik ez zidan kendu atsoak arratsalde osoan, eta bere kexa, pena eta min guztiak kontatu zizkidan.

Alderray

Sikeran konponketagatik kobratuko zenion, galdetu nion nik.

Morroia

Nola kobratuko nion? Atsoak esaten zuen hori Konpainia Elektrikoaren kontua zela. Argindarra kendu eta argindarra jarri. Esku hutsik atera nintzen handik.

Alderray

Esku hutsik ez. Atsoak dozenaka musu eman zion eskerronez eta, gainera, argiarekin "arazo" berdina zeukaten lagun pentsionista askoren helbideak eman zizkion.

Morroia

*Jende horri ez nion gauza handirik kenduko. Denak zeuden argirik gabe, denak pobrezia energetikoaren biktimak. Baina ez nuen esperantza galdu. Etxe haietan aurkitu daiteke dirutxo bat koltxoi baten azpian, edo **urrezko dominaren bat kaxoi batean.***

Morroiak bizpairu bonbilla pizten ditu.

Alderray

Astetan zehar, lapurrak dozenaka konexio pirata egin zituen, baina lapurtu...

Morroia

... batere ez! Agure atso kabroi horiek ez zidaten begirik kentzen. Ez nuen lapurreta bakar bat ere egin!

Alderray

Orduan zergatik zaude kartzelan?, galdetu nion.

Morroia

Konpainia elektrikoak salatu ninduen, konexio ilegalak egiteagatik. Epaitu eta kondenatu ninduten. Hogeita hamar urte.

Alderray

**Hogeita hamar urte konexio batzuk egiteagatik?
Kobratu gabe, gainera!**

Chica

*Horrexegatik batez ere, ez kobratzeagatik.
Konpainia Elektrikoaren abokatuek pentsatu zuten helburu politiko bat zegoela atzean.
Konturatu gabe, terrorista energetiko arriskutsu bihurtu nintzen, pensionista gaixoei etxean hotza pasatzeko eskubidea ukatzen ziena.*

Alderray

**Zergatik ez zenien esan etxeetara lapurtzeko
asmotan sartzen zinela?**

Morroia

Esan nuen. Baina ez zidaten sinistu.

Alderray

Ez dira garai onak, ez, gaizkile zintzoentzat.

Bonbillak dizdizka hasten dira, huts egiten ari dira.
Azkenean ilun erabatekoa egiten da.

Musika bukatu da.

Morroiak dirua batzen du.

Morroia

*Lapur Terrorista. Milesker. Eredu ekonomiko makurraren alde iluna salatzen duen pertsonaia.
Eskerrik asko. Lapur Terrorista.*

Morroia diruarekin bueltatzen da.
Alderray zerbait bilatzen ari da.

Morroia

Zeren bila zaude?

Alderray

Ez... ezer ez.

Morroia

Ez dago botila gehiagorik.

Alderray

Bai...

Morroia

Ardoak ez dizu lagunduko.

Alderray

Ez niri hitz egin mozkor bat banintz bezela!

Morroia

Nik ikusten dudana besterik ez dakit.

Alderray

Ez nago ondo. Ezin dut arnasa ondo hartu.

Morroia

Ba joan zaitez medikuarengana.

Alderray

Medikua? Mesedez... Medikua... Ez, ez... Badakit neure burua zaintzen. Zenbat batu dugu?

Morroia

GAUR GUTXI

Alderray-k hartzen du.

Alderray

BA... DENA ZURETZAT. Afari on baterako nahikoa izango duzu. Ni ez nago gose....

Alderrayk antzezteko jaka kentzen du.

Alderray

Itzali argiak eta batu dena, joan baino lehen.

Morroia

Joan? Orain?

Alderray

Bukatu dugu, ez dabil jada jenderik kalean. Agur.

Morroia

Ardoa erostera zoaz?

Alderray

Ez da zure kontua.

Morroia

Mesedez, jarrai dezagun.

Alderray

Entzulerik gabe? Nori kontatuko dizkiogu ba istorioak?

Morroia

Elkarri. Baina ez edonolako istorioak, ez. Guri axola zaizkigunak.

Alderray

Ez dizut ulertzen.

Morroia

Ez diozu inoiz zeure buruari galdetu zergatik etorri nintzen zugana?

Alderray

Kasualidadez aurkitu ninduzun kale bazter batean.

Morroia

Kasualidadean oinarritzen diren istorioak ez dira sinesgarriak.

Alderray

Zer esan nahi duzu, gure enkontrua ez zela kasualidadea izan?

Morroia

Ez. Istorio bat entzun nuen behin. Unkigarria. Zuk ehizaturiko pertsonaia bati buruz. Eta pentsatu nuen zure lana zoragarria dela.
Ofizioa ikasi nahi nuela zurekin.

Alderray

Ze pertsonaia zen?

Morroia

Auto Gidari Maitemindua deitu zenion.

Alderray

Ah...

Morroia

Gogoan duzu, ez?

Alderray

Bai.

Morroia

Entzun nahiko nuke berriro.

Alderray

Ez.

Morroia

Zergatik ez?

Alderray

Istorio txatxua da. Aspaldi baztertu nuen.

Morroia

Eta ez duzu jakin nahi zergatik hunkitu ninduen hainbeste?

Alderray isiltzen da.

Morroia

Ezin diozu jakinminari eutsi.

Alderray

Ez dakit zer jakin beharko nukeen, ez dakit nora heldu nahi duzun.

Morroia

Horrexegatik, jakinmin gehiago oraindik.

Alderray

Ondo da! Kontatu egingo dizut!

AUTO GIDARI MAITEMINDUA

Morroia

Emakumea. Hogeita hamabost urte. Hirurogei ta bi kilo. Metro eta hirurogeita bederatzi. Auto Gidari Maitemindua deituko diogu.

Alderrayk automobileko irrati bat hartzen du.

Alderray

Ospitalean aurkitu nuen. Ezur batzuk apurtuta zituen istripu bategatik. Istripua kontatu zidan erizainak. (hasi musika)
Mendiko errepide batetik gidatzen ari zen, bihurgunez jositako errepide batetik. Kotxeko irratian kanta bat.

Kanta entzuten da.

Alderray

Ezaguna zuen eta kantatzen hasi zen...

Morroia ere kantatzen hasten da.

Alderray

...ahots goran, oihu batean, euforiaz... Izugarri maite zuen kanta hura.

Kanta amaierara hurbiltzen ari zen, parterik gogokoena zetorren...

Morroiak kantatzen du.

Alderray

...eta halako batean, ezustean, errepidean tunel bat. Sartu bezain pronto hasi zen galtzen irratiako seinalea. Ezin kanta entzun. Tunelaren amaierako argiunea txiki ikusten zen oraindik, urrun. Kantaren amaiera galduko zuen. Azeleragailua sakatu zuen, hondoraino. Kotxearen motorea orroaka hasi zen. (Motorea) Azkar zihoan, gero eta azkarrago.

Tunelaren amaieran bihurgune bat zegoen ezkerretara. Andreak ez zuen ikusi. Kotxeak zuzen jarraitu zuen, errepideko hesi babesgarria aurretik eramanda, amildegiruntz. Hegan hasi zen kotxea. Irratiko seinalea berreskuratu zen.
Eta emakumeak, kotxe hegalariaren barruan, azkeneko estrofa kantatu zuen, pozik.

Morroiak azkena kantatzen du.
Biek hegan egiten dute eskuez.
Kanta bukatzen denean, kotxearen talka gogorra entzuten da, lurrera erortzean.

Alderray

Miraria izan zen kotxeak lurrartze leun samarra egitea, miraria emakumea bizirik irtetea.

Horrela bukatu zuen istorioa erizainak. "A ze erokeria", pentsatu nuen nik, "kanta zuztarbako bategatik bizitza arriskuan jartzea..."

Orduan gizonezko bat sartu zen. "Bere maitalea da" xuxurlatu zidan erizainak belarrira.

Gizonak emakumea eskutik oratu zuen. Emakumea esnatu egin zen. (hasi musika) Gizonak galdetu zion: "zergatik zindoazen hain azkar tunel hartan?".

Morroia

Maitea, Irratian gure kanta zegoelako.

Alderray

Eta biak kantatzen hasi ziren...

Morroiak eta Alderrayk kantatzen dute.

Alderray

Gure kanta!" Ikaragarri deprimitu ninduen irudi azukrezko horrek. Musikagatik ez, okerrago, maitasuna deitzen dioten fikzio zentzugabeagatik jokatu zuen bere bizia andra zoro horrek.

Erizainari begiratu nion. Bikoteari begira zegoen, bera ere irribarrez. Masailean negar malko bat.

Musika bukatu da.

Morroia

Hala ere, niri kontatu zidaten bertsoia desberdina da.

Alderray

Ah, bai?

Morroia

Zu istorioaren partea zinen. Amaieran agertzen den gizona zinen, emakumearen maitalea.

Alderray

Ni, istorio horren partea? Erabat ezegokia litzateke. Narradorea neutroa izan behar da, ez da istorioan inplikatu behar.

Morroia

Arau hori estu jarraitu duzu zuk. Bizitza pribatua lanetik aparte mantendu duzu beti. Konpartimentu estankoak.

Alderray

Jakina! Zertarako hasiko naiz jendearen aurrean nire kuitak kontatzen? Ze kulpa du jendeak?

Morroia

Sikeran zeure burua ezagutzeko.

Alderray

Ondo ezagutzen dut neure burua.

Morroia

Frogatuko dizut ezetz.

EZUSTEKO ESKALEA

Morroia

Gizona, hirurogeita bost urte, metro eta hirurogeita hamar, hirurogeitasei kilo, ile nabarra. Ezusteko Eskalea deituko diogu.

Ni zurekin lanean hasi eta gutxira gertatu zen. Gabon garaian. Zu deprimituta zeunden, utzita.

Alderray

Orduan hasi zen itolarri hau.

Morroia

Gauetz gehiegi edaten zenuen.

Alderray

Ondoeza arintzeko.

Morroia

Ez zinen ehizan ateratzen, ez geneukan zer kontaturik. Goiz batean esnatu zintudan. "Jauna, horrela ezin dugu jarraitu, ehizan atera behar duzu". Kasu egin zenidan.

Alderray

Jantoki sozial batera joan nintzen, eskale bat ehizatzer. Gabonak topiko ergelen garaia da. Jendea txolindu egiten da istorio melengekin, badakizu, Dickens, hator hator mutil etxera, maratoi solidarioak eta bla, bla, bla. (hiru aldiz)

Morroia gabon kanta bat kantatzen hasten da.

Alderray

Eguerdian joan nintzen eta Jantokia gainezka zegoen.

Poztu behar nintzen, ehizarako aukera handia zegoelako, baina amorrua eman zidan. Joder, barruan odol tanta bakar bat geratzen zaigun bitartean, norberak bilatu behar du ahora zer eraman, eta ez beste inoren zopa boboaren eskean ibili.

Hasi nintzen bada, galdezka eta erantzun zakarrak baino ez nituen jaso: sartzeko neure kontuetan, pikutara joateko.

Normala. Ansiedadea eta presak ez dira onak ofizio honetan. Otsoa artalde erdian bezela sartu nintzen, baldar, eta konturatu orduko ehiza guztia alde eginda zegoen.

Komunera joan nintzen etsita.
Neure burua ikusi nuen ispiluan, aspaldiko partez.

Morroia

Zahartuta. Nekatuta. Utzita.

Alderray

Komunetik irten eta andra bat hurbildu zitzaidan, irribarrez: jantokiko bolondres bat.

Morroia

"Mesedez ez zaitez joan plato bero bat hartu gabe."

Alderray

Pikutara bidaltzekotan egon nintzen: "Sasimonja alua, sar zaitez zure kontuetan eta utzi niri pakean. Ni ez naiz zure zopa boboaren bila etorri."

...baina mahai gaineko porrusalda beroak ahoa itxi zidan. Tutik esan gabe jan nuen ogian bustita. Ondoren solomo xerra. Eta sagar bat. Beste bat eskeini zidan biderako. Ez nion ezetzik esan.

Kalera irten nintzen, jantokiaren inguruan eskaleren bat harrapatzekotan. Inor ez. Urrunean, zubi azpian, kartoi batzuk zeuden. Hurbildu nintzen, baina eskalerik ez, han ere. Ez zen nire eguna.

Ondoko txino batean ardoa erosi nuen. Iluntze aldera, leher eginda, banku batean eseri nintzen. Euria hasi zuen.

Negu madarikatua!

Norbait hurbildu zen. Eguerdiko andra bera zen, lehengo irribarre berdinarekin.

Morroia

Jauna, gauean hotza egingo du. Udaletxeak aterpea ireki du. Toki atsegina da, giro lasaia dago. Han seguru egongo zara. Joan zaitez.

Alderray

Aterpe baten txartela sartu zidan poltsikoan. Oraingoan ez nintzen mutu geratu.

"Utzi bakean, atsoa! Ze aterpe eta ze ostia! Zoaz pikutara zure irribarre nazkantearekin. Aterpea! Besterik ez nuen behar."

Pentsiorako bidean jarri nintzen. Elur bustia eta haize hotza. Orduan gogoratu nuen pentsioko jabeak goizean esan ziguna.

Morroia

Entzuidazue zuek biok: Ez badidazue ordaintzen zor didazuen guztia, gau honetan ez etorri hona. Ez dizuet sartzen utziko!

Alderray

Joder...!

Poltsikotik andrak utzitako txartela atera nuen. Aterpea ez zegoen hain urrun.

Istoria bukatu da.

Morroia

Gau hartan pertsonaiarik ez zenuela ehizatu? istorio hartako pertsonaia zu zinen, Alderray. Eskalea denik ez dakien eskalea.

Alderray

Zer uste duzu, ez nintzela konturatu? Horren inozoa naizela uste duzu?

Morroia

Eta zergatik ez duzu inoiz istorioa eskeini?

Alderray

Ez da interesgarria.

Morroia

Nola ez? Zuri buruz gauza asko esaten digu.

Alderray

Kasu hortan, niretzat izango da interesgarria.

Morroia

Baina...

Alderray

**Badakit, bai, autofikzioa eta kontu horiek...
Ondo saltzen da, bai, modan dago.**

Morroia

Eta terapeutikoa da.

Alderray

**Nik ez dut sikoterapia egiten. Nik pertsonaiak
ehizatzen ditut. Autofikzioa! Biluztu zaitetz
zu, hain "terapeutikoa" bada.**

Morroia

Erronka onartzen dut. Biluztu egingo naiz.

MISERABLEA

Morroia

Emakumezkoa, hogeita bost urte, metro eta hirurogeita bost, hogeitamasei kilo. Miserablea deituko diogu.

Morroiak ispilu bat hartzen du. Alderrayri ematen dio, berak erabili dezan.

Morroia

Bakarrik bizi nintzen. Lan ona neukan,

Alderray

Ze lana zen?

Morroia

Lan arrunta, lasaia. Bizimodu arrunt eta lasaia neukan.

*Egunero bazkaltzen nuen taberna berean, laneko kideekin. Egun batean, bazkaltzera joan eta taberna itxita. Pandemia garaia zen. Tabernariak ezin zuen alokairua ordaindu. Lokalaren jabeari kuota jeisteko eskatu zion, **baina jabeak kasurik ez.***

Alderray

Ergel halakoa! Biak aterako ziren galtzen, ezta?. Tabernaria eta bera, jabea. Errenta jaisten bazuen, gutxiago baina sikan kobratzen jarraituko zuen.

Morroia

Hala da. Jabea miserablea zen, eta gainera ergela. Ondorioa dramatikoa izan zen: tabernariak bere buruaz beste egin zuen. (.....)

Horrek ikutu ninduen. Jabea miserablea aurkitu nahi nuen. Wenster bat bezela irudikatzen nuen enkontrua. Nik pistola atera eta "bala hau zuretzako da, jauna, ergel eta miserablea izateagatik"

Alderray

Eta? Aurkitu zenuen?

Morroia

Ez zen erreza. Tabernaren jabetza esku batetik bestera pasatu ondoren, azkenean "fondo buitre" horietako batek erosia zuen.

*Baina enpresa anonimo horietan hezur haragizko inbertsoreak ezkututzen dira. Ehundaka web orri aztertu nituen. Azkenean, banku batean, inbertsore zerrenda luze bat lortu nuen. Haietako edozeinek balio zidan, haietako edonor zen bila nenbilen jabe miserable eta ergela. Zerrenda irakurtzen hasi eta han, ehundaka inbertsoreen artean, **neure izena agertzen zen...***

Alderray

Zeure izena!?

Morroia

Zertan nengoen ni ba, zerrenda hartan? Eta orduan gogoratu nuen. Amak hil zenean diru bat utzi zidan, eta nire sukursaleko zuzendariak inbertsio fondo seguru bat aholkatu zidan.

Ispiluaren aurrean jarri nintzen. "Bala bat merezi duzu, ergel eta miserablea izateagatik." Ispiluaren bestaldeko irudiak gupida eske begiratu zidan, mesedez, uzteko bizirik, errugabea zela, ez zekiela ezer, eta bla bla bla.

Ez nuen adorerik izan tiro egiteko. Ispiluko irudiak milesker doi bat bota zidan, negar zotinka. Txiza eginda zegoen. Miserablea.

Istoriaoa bukatu da.

Alderray

Ondo da. Biluztu egin zara. Eta? Zer kontatu duzu? Inbertsio desegokia egin zenuela? Krisialdi existentzial bat izan zenuela?

Morroia

Gertaera horrek nire bizitza aldatu zuen. Orduan erabaki nuen zure bila joatea.

Alderray

Eta nori inporta zaio?

Morroia

Zuri eta niri.

Alderray

Ziur zaude?

Morroia

Zuk istorio intimo hauek mespretxatzen dituzu.
Nahiago dituzu pertsonaia dramatikoak,
heroikoak, urrunekoak... Badakizu zergatik?

Alderray

Esaidazu zuk.

Morroia

Ihes egiteko. Beldurra ematen dizulako zeure
barruan begiratzeak.

Alderray

**Babukeriak. Istorio bat kontatuko dizut nik.
Istorio "intimo" bat. Ea ulertzen duzun
behingoz.**

*Alderray-k bere tramankuloen artean bilatzen du. Beste
gauzen artean, testu bat.*

Alderray

**Bekatuen lapurra. Hor duzu fitxa, erreplikak
emateko.**

Morroia

Ez da beharrezkoa. Ezagutzen dut.

Alderray

Nola...? Ez dut inoiz kontatu.

Morroia

Baina ezagutzen dut.

Alderray

Nire paperetan kuxkuseatzen ibili zara?

Besterik ere behar genuen.

Bekatuen LAPURRA

Morroia

Gizona. Hirurogeita bost urte. Hirurogei ta bederatzi kilo. Metro eta hirurogeita hamazazpi. Burusoila. Bizarduna. Bekatuen Lapurra deituko diogu.

Morroiak inzentsu-ontzi bat astintzen du, kea eta lurrina zabalduz.

Alderray

Inzentsu-ontzi bat astintzen ibiltzen zen kaletik. Horrela topatu nuen nik, irribarre lelo batekin. Apaiza izan omen zen gaztetan.

Morroia

Ehundaka bekatu entzun nituen konfesategian, milaka. Pekatu lizunak, gordinak, morbosoa, bortitzak...

Alderray

Gizona fedea galduz joan zen pixkanaka. Apaiz izateari utzi zion azkenean. Egun batetik bestera, munduan zegoen bakarrik eta pobre.

Morroia

Pobre ez! Entzundako pekatu guztiak gogoratzen nituen. Jendeak ahaztu nahi zituzten oroitzapen horiek guztiak niretzako hartu nituen. Bekatu horiek guztiak neureganatu nituen. Memorian ondo gordeta.

Alderray

Bekatuen lapurra. Apaiz txoro alena!

Morroia

*Eta horrela, hiritik atera gabe, bizitza zoragarria bizi izan dut. Bekatuz beterikoa. Hamaika emakume zoragarriren maitalea izan naiz. Sexurik gordinena praktikatu dut Sodomán eta Gomorran. Ardorik gozoenak eta drogarik hordigarrienak dastatu ditut. **Debeku guztiak hautsi ditut, muga guztiak apurtu.***

Alderray

Inzentsu usainak goragalea ematen zidan.
Joatekotan nengoen, baina berak jarraitu zuen.

Morroia

*Hala ere, batzuetan bekatu triste bat
gogoratzen dut eta ezin burutik kendu.*

Alderray

Irribarrea ezabatu zitzaion. Bere begirada
ilundu zen bapatean.

Morroia

*Esatebaterako emakume horrengandik aldendu
nintzenekoa.*

Alderray

Amodio istorio triste bat hasi zen kontatzen.
Eta zirrara batek astindu ninduen. Kontatzen
ari zen hura nire oroitzapen bat zen. Detaile
guztiek bat egiten zuten, maiteari egin nion
mina, barkamena eskatzeko ezintasuna, sekula
neure buruari barkatuko ez diodan koldarkeria,
ondorengo bakardade latza... Aspaldian bota nuen
oroitzapen hura zabortegira. Eta betiko
desagertua zela uste nuen.
Gizonak begiak malkoz bustirik zituen. Lepotik
heldu eta "nola jakin duzu!" galdetu nion.

Morroia

*Konfesiñoko sekretua da. Bekatua esan dezaket,
bekataria ez.*

Aderray

Ze bekatu eta ze ostia! Esan nola jakin duzun!
Nik ez diot inori kontatu eta are gutxiago
apaiz txoro bati! Esan nola lapurtu didazun.

Morroia

Jauna, mesedez, askatu eta utzidazu azaltzen.

Alderray

Hitzegiten utzi nion.

Morroia

Jauna, pertsona bakoitzaren poza desberdina da. Baina gure tristurak antzekoak dira denak. Ez da kasualitatea niri konfesiñoan kontaturikoa eta zurea antzekoak izatea. Antzekoak direlako beti garratz minak. Sinistuidazu, arren, eta utzi bakean.

Alderray

Agurrik esan gabe alde egin nuen. Azken begirada bota nion. Oraindik negarrez ari zen, berea ez zen oroitzen triste horregatik... penaturik.

Morroia

Ego te absolvo a peccatis tuis, in nomine Patris, et Filii, et Spiritus Sancti.

Istoria bukatu da.

Alderray

Argi geratu zaizu?

Morroia

Emakume bera zen?

Alderray

Nola?

Morroia

Aipatu duzun maite hura. Min eman zenion hura, zurekin ospitalean amodio kanta hura kantatu zuen berbera da, ezta?

Alderray

Hori ez dator harira.

Morroia

Ah, ez? Eta zertarako kontatu didazu, ba?

Alderray

Uler dezazun gure "istorio pertsonalak" arruntak direla denak. "Gure tristura denak antzekoak dira".

Morroia

Horrexegatik interesatzen zaizkigu. Gertukoak direlako, identifikatuta sentitzen garelako.

Alderray

Ze erreza, ezta? Zertarako nekatu lehertu arte pertsonaia berezien bila, geure bizitza arrunta kontatu ahal badugu, etxeko sofatik altxatu gabe? Ez, gazte, ez. Nik ez dizut holakorik irakatsi.

Morroia

Norberaren istorioa ez da arrunta. Txikia, agian, baina ez arrunta.

Alderray

Benetan... ez dakit zertara datorren hau guztia.

Morroia

Lasai. Gutxi falta da. Azkeneko istorioa. Istorio arrunt bat. Pertsonaia arrunt bat.

Paperetan bilatzen du. Alderrayri luzatzen dio.

Morroia

Hemen dago. Ama Kuraia. Hor duzu fitxa, erreplikak emateko.

Alderray

Ez da beharrezkoa. Ezagutzen dut.

Morroia

Nola?

Alderray

Ez zara zu bestean gauzetan Kuxkuzeatzen ibili den bakarra.

AMA KURAI

Alderray

Emakumea, berrogeita hamabost urte, hirurogei kilo, metro eta hirurogeita bi, ile horia, Ama Kuraia deituko diogu.

Auzoko tabernara sartu zen emakumea. Infusio bat eskatu ondoren, mahai batean eseri zen.

Bakarrik zeuden tabernan, bera eta tabernaria. Honek, jabea ez zegoela aprobetxatuz, koñak botila garestiena atera eta kopa bat serbitzatu zuen.

Alderrayk kopa bat ateratzen du.

Alderray

Andreari ere beste bat eskeini zion.
Auzokideak ziren, erdi ezagunak.

Morroia

Gustora onartuko nizuke, baina kalte egingo dit. Gibela zaindu behar dut. Milesker, dena den.

Alderray

Andrearen irribarrea atsegina zen

Kalkulagailu batekin kontuak egin eta kontabilitate koaderno batean apuntatzen ari zen, letra txukun zuzenaz, konzentrazio osoaz. Tabernariak galdetu zion ea bulegoko lana tabernara ekarri zuen.

Morroia

Ez dut bulego batean lan egiten. Eskailerak garbitzen ditut. Kontabilitate hau bizitza pribatuarena da...

Alderray

erantzun zion andreak, irribarrez berriro ere.

Isilik geratu ziren biak lipar batez. Baina andreak barrena askatzeko beharra zuen.

Morroia

Hamazazpi urteko alaba daukat, badakizu. Nire soldata eskasarekin mantendu dut familia, ozta ozta, orain arte.

Baina duela gutxi gaitz larri bat diagnostikatu didate, gibelego zezor.

Ez dakit zergatik ari naizen zurekin barrenak askatzen, ez diot inori kontatu, are gutxiago familiari. Gaitzak sendabidea dauka, baina tratamendua luzea da. Lana utzi beharko nuke, eta kontraturik gabe ari naizenez, kalte ordainik edo langabeziarik ez dut jasoko. Eta alaba datorren urtean unibertsitateera joatea nahi dut.

Horregatik nago zenbakiak egiten. Oraindik ez ditut bukatu, baina itxura onik ez.

Alderray

Kuadernoa erakutsi zion tabernariari.

Morroia

Bi zutabe daude, ikusten? "Debe" eta "Haber". Ezkerrekoan tratamendua onartzekotan sortuko zaidan egoera ekonomikoa; eskuinekoan ezer ez egin eta gaitzak bere bidea egingo balu gertatuko dena. Kontua da bizitza aseguru bat dudala, alabaren alde. Oker ez banago, une honetan hilda gehiago balio dut, bizirik baino.

Alderray

Tabernaria hitzik gabe geratu zen.

Morroia

Oraindik ez dut bukatu, dena den. Ezkerreko zutabeaz azkeneko sarrera batzuk falta zaizkit. Baliteke, suerte apur batez...

Alderray

Eta kalkuloetan murgildu zen osterara ere. Ordu erdi beranduago edo, andreak kontuak bukatu eta kalkulagailua, kuadernoa eta boligrafoa gorde zituen poltsoan. Orduan tabernariari esan zion:

Morroia

*Ondo pentsatuta, kopa hori onartuko dizut,
berandu ez bada.*

Alderrayk kopa luzatzen dio.

Istorioa bukatu da.

Alderray

**Ez nauzu hunkituko istorio horrekin. Ez dut
emakume horren jarrera "heroikoa" miresten.
Txingurri arima da.**

Morroia

Txingurri arima?

Alderray

**Txingurriek bizitza sakrifikatzen dute
taldearen mesedetan. Gu ez gara txingurriak,
joder. Ni behintzat ez. Nik biziraupen
instintoa errespetatzen dut.**

Morroia

Badakit. Berak ere bazekien nolakoa zaren.

Alderray

Nork?

Morroia

Emakumeak. Ama Kuraiak.

Alderray

Zer zerikusia daukat nik emakume horrekin?

Morroia

Zure ondoan bizi izan zen hainbat urtez.
Ospitalean elkarrekin kantatu zenuten behin
amodio kanta bat, maitasunagatik bizitza
arriskuan jarri zuen hartan.

Morroiak kanta kantatzen du, edo offean entzuten da.

Alderray

Isildu! Isildu!!!!

Musika isiltzen da.

Alderray

Hilda dago?

Morroia

Hil zen, bai. Eta alabak bizitza aseguru hori kobratu zuen.

Alderray

Gezurra da dena.

Morroia

Ez, Alderray. Nik ez dut fizkioa egiten. Hori zugandik ikasi dut. Hemen duzu eskela, nitaz fidatzen ez bazara.

Egunkari zahar bat erakutsiz.

Alderray

**Baina... Eta alabak...? Nola utzi zuen hiltzen!
Nola ez zuen behartu tratamendua hartzera?**

Morroia

Alabak ez zekien ezer tratamenduaz. **Ama hil ostean jakin zuen dena.**

Morroia

Ah! Bide batez... Badakizu zerbait alabari buruz?

Alderray

**Ez. Hobe berarentzat. Ez naiz konpainia egokia.
Ez ninduen ezagutu, urtebete zuela joan nintzen. Ez nau faltan botako.**

Morroia

Indartsua zinen orduan. Gaztea. Kemenez betea. Bakardadea maite zenuen.

Alderray

Ehiztariok bakarrik bizi behar dugu. Aske.

Morroia

Bai, pertsonaia ezezagunen bila irten zinen, erreparatu gabe ondoan zenuen pertsonaiaz.

Alderray

Ze pertsonaia?

Morroia

Emakumea. Urtebete. Zortzi kilo. Hirurogeita hamar zentimetro. Ile hori kizkurra. Alaba deituko diogu.

Alderray

Ez dakizu zertaz ari zaren!

Morroia

Ez zinen konturatu haur hura izan zitekeela zure bizitzako pertsonairik handiena.

Alderray

Bai! Je! Oraindik idatzi gabeko orri zuria. Misteriorik harrigarriena. Bizitza. Bizitza hutsa. Bizitza ez besterik.

Morroia

Ez zenuen ikusi. Hainbesteko indarra zenuen, mundua haginka jateko hainbesteko gogoan...

Baina zahartu egin zara, indarra eta kemena galdu dituzu. Eta zeure buruari galdetzen diozu orain: zertarako askatasuna, zertarako bakardadea.

Horregatik zure mina, Alderray. Horregatik itolarria.

Alderray

Familia...! Han geratu izan banintz, emakume horrekin geratu izan banintz, orain damututa egongo nintzateke, bere momentuan libre alde egiteko kuraiarik ez izateagatik.

Morroia

Seguraski. Kontentagaitzak gara. Baina horrek orain ez zaitu kontsolatzen.

Alderray isilik geratzen da.

Morroia

Kitto. Esan beharrekoa esan dut. Orain banoa.

Alderray

Bai! Zoaz! Zoaz hemendik! Zu agertu zinenetik ez dut bakerik izan!

Morroia

Zergatik? Alabaren oroimena piztu dizut, akaso?

Alderray Morroiari begira geratzen da tarte luze batez.

Alderray

Zein... zein da zure izena?

Morroia

Nola?

Alderray

Zure izena...

Morroia

Benetan? Orain jakin nahi duzu? Beranduegi, ez? Zergatik galdetzen didazu? Ah! Zure alabaren izena ote dudan jakin nahi duzu?

Morroia

Ni zure alaba? (Irriz) Alderray, mesedez. Kasualidade gehiegi, ez? Istorioek, kasualidadean oinarritzen direnean, sinesgarritasuna galtzen dute.

Alderray

Batzuetan holakoak gertatzen dira.

Morroia

Zuk nahi baino gutxiagotan.

Morroia

Gainera gogoratu: gure tristurak antzekoak dira denak, antzekoak dira garratz-minak. Beraz normala da ni zure alabarekin nahastea.

Alderray-k ez daki zer pentsatu.

Alderray

Ederra izango zen. Alaba agertzea eta azken aukera bat eskeintzea. Besarkatuko nuke, barkatzeko eskatu, berak onartuko luke, jakina, eta ez nauela sekula bakarrik utziko agindu. Ederra izango zen, baina ez, bizitza ez da literatura.

Morroia

Zuk gorroto duzu fikzioa.

Alderray

Hemen egia dago, egia ez besterik. Egia arrunta.

Morroia

Horixe. Orain banoa. Egin aurre zeure itzalari. Bakeak egin edo ardotan ito zaitez, zeuk ikusi.

Alderray

Nirekin jarraitu dezakezu, nahi baduzu.

Morroia

Ez...

Alderray

Irabazten duguna erdibana egin genezake. Ondo aritu gara gaur, zuk esan duzu. Lantalde ona osatzen dugu.

Morroia

Bada garaia nire aldetik hegan irteteko.

Alderray

Ondo da. (...) Ba... agur.

Morroia

Agur. Eta milesker. Sikeran, ofizioa irakasteagatik.

Morroia irtetera doa.

Alderray

Ez, Morroia, milesker zuri. Istorio honegatik.

Morroia geratzen da.

Morroia

Nola?

Alderrayren jarrera aldatzen da. Irribarre bat somatzen hasten zaio.

Alderray

Ez nauzu hain ondo ezagutzen. Bolada txarra pasatu dut, egia da, abailduta nengoen. Baina ez "familia" edo "etxeko berotasuna" faltan botatzen nituelako. Horiek zure fantasiak dira, ez nireak.

Morroia

Baina...

Alderray

Zahartzeak beldurra ematen dit, bai. Baina batez ere ehiztari sena galtzeak. Azken urteotan ez dut istorio berririk aurkitu. Bat ere ez! Gauero aspaldiko istorio zaharrak errepikatzen ibili naiz, nazkatu arte. Horrek abailtzen ninduen. Nire garaia bukatua zela uste nuen. Eta gaur... gaur...! (irriz) gutxien uste nuenean... (irriz) zuk... (...) istorio harrigarri bat oparitu didazu! Pertsonaia ikaragarri bat!

Morroia

Zoratuta zaude, Alderray.

Alderray

(Euforiaz) Emakumea. Hogeita bost urte. Berrogeita hamabost kilo. Metro eta hirurogeita bost. Ile horia. Morroia deituko diogu. (...)

Morroia

Gure... Nire istorioa kontatuko duzu...? Jendaurrean? Diru truk?

Alderray

Zuk ez, ala?

Morroia

Nik ez nuke salduko sekula...

Alderray

Ez eman beteko ez duzun hitzik! Ni bezelakoa zara, ondo dakit hori. Istorioak ehizatzeko eta kontatzeko pozoia duzu zainetan. Nire istorioa kontatuko duzu nik zurea kontatuko dudan bezela. Bakean gaude beraz. Ez diogu elkarri ezer zor. Ondo izan!.

Morroia

Nora zoaz?

Alderray

**Gau zoragarria dago! Egongo da hortik istorio on bat entzun
nahi duenik. Agur! Zorte on... lankide.**

Alderray badoa.

Alderray

**Pertsonaiak!!! Hurbildu eta ezagutu pertsonaiarik
harrigarrienak! Mota guztietako pertsonaiak, jaun andreak!
Benetako pertsonaiak, hiri honetan harrapaturikoak.
Harritu zaitezte hiri honetako giza faunarekin...**

Antzezlanaren hasieran bezala, eskenatokia ilun geratzen da. Argi puntual batek Morroia argitzen du.

Morroia

(Publikoari) Gaueko iluntasunean galdu zen. Ez dut berriro haren berririk izan. Inoiz berriro ez.

Morroiak musika isiltzen du.

Morroia

Gizonezkoa. Hirurogeita zazpi urte, hirurogeita hamaika kilo. Ile gaztaintara. Alderray deituko diogu. Pertsonaien ehiztaria.

Morroia badoa, publiko artean dirua bilduz.

Iluna

